



BAZKIDE GARRANTZITSUAK

Gure enpresa ELBASURF-ek, aliantza bakarra du eta honi buruzko informazioa azalduko dugu:



Lehenik eta behin, gure enpresa ELBASURFek surf taulak egiten dituen enpresa bat izango du hornitzaile nagusi bezala. Honek aliantza estrategiko bat izango dugula adierazi nahi du. Guk enpresa honi surf taulak erosten dizkiogu. Ondoren, gure enpresan ohol hauek modifikatu egiten ditugu, elbarrituentzat zein desgaitasunak dituztenentzat egokiak izan daitezen, honela beraiek ere surfaz gozatzeko aukera izang dute.

Aliantza estrategikoaren inguruan, enpresa honi gutxienezko parametro batzuk betetzea eskatuko diogu. Nagusiki elbarrituentzako direnez eta gure enpresan modifikatuak izango direnez, kalitatezkoak eta neurri handikoak izatea ezinbestekoa izango da. Enpresa hau sortzean, hasiera batean, enpresa bat izango dugu azpikontratatuta, honek oholak salduko dizkigu eta gure lana hauek modifikatzean hasiko da. Beharrezkoak diren pausu guztiak jarraituz. Hala ere, sakon hausnartu ondoren, etorkizunean gure enpresa ondo joanez gero, guk taulak egitea aukera bat izango litzake. Lehengaiak, makinak baita beharrezkoak diren faktore guztiak erosteko baliabide nahikoak ditugunean, noski.



Gure hornitzailearengan erreparaturik, aliantza estrategiko honek ondo funtzionatu dezan, aliantzako bi aldeek zerbait irabaztea ezinbestekoa da. Hornitzaileak guri prezioak eta



ofertak egiteak berari ere onurak ekarri behar dizkio. Horregatik gure eskolan zein enpresan, hornitzaileari publizitatea egingo diogu, tauletan honen pegatinak egongo dira, eskolan ere, enpresari buruzko informazioa eskainiko dugu baita beste produkturen bat saltzen badute gure eskolan zein fabrian eskuragarri jarri. Gure bezeroei, taula erosterakoan taula honi buruzko informazioa emango diogu, hornitzaileari buruzko informazio onuragarria azalduz.